

## **2007ko MAIATZAREN 21eko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta zazpiko maiatzaren hogeita batean goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- UDALETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO PROIEKTUAREN ONARPENA**

Lizartzako Udaletxearen aurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berria egiteko proiektua aurkezten da onarpenerako.

Bera aztertu ondoren, aho batez onartzea erabaki da.

### **3.- UDALETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO PROIEKTUA FINANTZATZEKO HITZARMENA**

Alkateak, hitza harturik, Udaletxearen aurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berria egiteko proiektua finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde eta Sustapenerako Departamentuarekin sinatu beharreko Lankidetzaren Hitzarmenaren berri eman du, eta literalki honela dio:

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LURRALDE ANTOLAKETA ETA DEPARTAMENTSUAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, UDALETXEAREN AURREAN GAUR-EGUN DAGOEN, ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO PROIEKTUA FINANTZATZEKO**

Lizartzan, 2007ko maiatzaren 22a.

Batetik, KOLDO AZKOITIA ZUBIZARRETA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuko foru diputatua eta Aldundiaren legezko ordezkaria, Diputatuen Kontseiluaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluaren 2007ko ...(a)ren ...ko erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimendua.

Eta bestetik, JOSEBA EGIBAR ARTOLA jauna, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakaria, 2007ko maiatzaren 21eko Udal Batzarraren erabakiaren bidez egintza hoentarako berariaz baimendua.

Esku hartzen duten bi aldeek LANKIDETZA HITZARMENA izenpetzeko legezko ahalmena onartzen diote elkarri eta horretarako ondorengoa

### **ADIERAZTEN DUTE**

Gipuzkoako Foru Aldundia, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuaren bitartez, Gipuzkoako zenbait udalerritan hirigintza aldetik hondatutako hiri eta landa guneak berreskuratzeko eta biziberritzeko politika gauzatzen ari da.

Horretarako, sarri erabili da lankidetzaren hitzarmenaren figura, aritu nahi den eremu edo areako erakunde edo entitate lokal publikoekin batera lan egiteko.

Kasu honetan, Lizartzako Udalari lagundu nahi zaio, udaletxearenaurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berri bat egiteko.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, ASMATU, S.L. enpresak UDALETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO PROIEKTUA idatzi du, 2007ko martxoko

agiriaren arabera. Kontrata bidez egingo diren lanen aurrekontua 238.272,73 €koa da eta lanak egiteko epea hiru (3) hilabetekoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen du, 125.000,0 € jartzeko konpromisoa, hau da, Lizartzako udalak enkante espedientea izapidetu ondoren, kontratatu eta gauzatu behar dituen aipatutako lanen aurrekontu osoaren %52,46, hain zuzen.

Ondorioz, Lizartzako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzea erabaki dute, eta hitzarmen hori arautzeko ondorengo klausulak ezarri dira.

## **KLAUSULAK**

**LEHENENGOA.-** Hitzarmen honen helburua da lankidetzaren esparru bat ezartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lizartzako Udalaren artean, UDALETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO PROIEKTUA finantzatu eta gauzatzeko, ASMATU S.L. enpresak idatzitako 2007ko martxoko agiriaren arabera.

### **BIGARRENA.-**

- 1.- Lizartzako Udalak bere gain hartzen du UDALETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO PROIEKTUARI dagozkion lanak kontratatzea idatziko proiektu teknikoaren arabera.
- 2.- Hitzarmen honen bitartez finantzatuko diren obrak esleitu, kontratatu eta gauzatzeko jarduketan berri emango dio Lizartzako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuari.

**HIRUGARRENA.-** Lizartzako Udalak, dena dela, ondoko betebeharrak bete behar ditu:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dituen egiaztapenak onartzea, bai eta 2007ko martxoaren 27ko 4/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legerian ezartzen diren finantza kontrolak ere, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman eta gauzatzeari buruz eskatzen dioten informazio osagarri guztia emanaz.
- b) Inbertsioak gauzatzeko epean, Udalak kartel bat jarrita edukitzea, euskaraz eta gazteleraz idatzia, jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza jaso duela iragartzen duena.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea bestelako diru laguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo bitartekoak eskuratu dituen diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.
- d) Jasotako diruaren erabilera egiaztatzen duten agiriak gordetzea, egiaztatutak eta ikuskatuak izan daitezkeen bitartean, behintzat.

## **LAUGARRENA.-**

1.- UDALETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO PROIEKTUA gauzatzeko Foru Aldundiak egingo duen ekarpena EHUN ETA HOGEITA BOST MILA €-koa (125.000,00) izango da eta Lizartzako Udalarari modu honetaran ordainduko zaio:

- a) Ekarpenaren %25, hitzarmena sinatzean.
- b) %50, behin lanen proiektuaren %50a gauzatu dela agiri bidez frogatzen denean.
- c) Gainerako %25a, behin lanen proiektua gauzatu dela agiri bidez frogatzen denean.

- 2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko b) eta c) apartatuetan adierazitako ordainketak egin ditzan, Lizartzako Udalak Lurralde Antolaketa eta Sustepenerako Departamentura ondorengo dokumentuak igorri beharko ditu:
- Udalak ordainketa eskatuz egindako eskaera.
  - Diru laguntza jasotako jardueraren betetze maila partzial (%50) edo osoa egiaztatzen duten ziurtagiriak, fakturak edo haien ordezkoko dokumentuak.
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Lizartzako Udalari eska diezaioke, beharrezkotzat jotzen bada, egindako gastuak eta hauek zertan egin diren egiaztatzeko beharrezkoa deritzon dokumentazio osagarria bidaltzeko.
- 4.- Horrela bada, EHUN ETA HOGEITA BOST MILA €-tan (125.000,00) finkatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo duen finantzazioa. Kopuru hori behin betikoa da eta ez du inolako doiketarik izango eta, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du inolaz ere finantzatuko 4. klausulan ezarritako zenbatekoa gehitzea lekarkeen aurrekontu desbideraketarik.

#### **BOSGARRENA.-**

- 1.- Jasotako diru laguntza itzuli egin beharko da eta, hala badagokio, baita berandutza interesak ere, hitzarmen honen 4. klausulan adierazitako diru laguntzaren zatiak ordaindu diren unetik aurrera kalkulatuta, ondorengo kasuak gertatzen direnean:
- a) Foru Aldundiaren ekarpenaren xedea ez bada betetzean.
  - b) Egiaztatzeko betebeharra ez bada betetzen edo behar adina ez bada egiaztatzen.
  - c) Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiaztapen eta kontrol finantzarioko lanei aurre, muzin, oztopo edo uko egitea.

2.- Era berean, jasotako diru kopurua itzuli beharra egongo da, Udalak ez baditu hitzarmeneko 3. klausulan ezarritako betebeharrak betetzen.

3.- Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publiko diru sarreratzat hartuko dira.

4.- Dirua itzuli beharra dagoen kasuetan, ordaintzeko dauden diru kopuruak kobratzeko eskubidea ere galduko da.

#### **SEIGARRENA.-**

1.- Lizartzako Udalak jasotako diru kopuruak eta berandutza interesak itzuliko dituela bermatuko du, Udal Finantzaketarako Foru Fondotik hartu beharreko zenbatekoekin.

2.- Horretarako, hitzarmen honetan ezarritako baldintzak ez badira betetzen eta diru laguntza ez bada itzuli hura itzultzeko ematen den ebazpenean ezarritako epean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lizartzako Udalari Udal Finantzaketarako Foru Fondotik egin behar zaion ordainektatik kendu ahal izango du Udalak zor duen kopurua.

#### **ZAZPIGARRENA.-**

1.- Hitzarmen hau administratiboa da; ordenamendu juridiko administratiboak zuzenduko du interpretazioa eta garapena. Parte hartzen duten alderdiak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren agindupean egongo dira, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 8.3 artikuluan ezartzen duena betez.

2.- Beti ere, hitzarmen honetan aurreikusitako ez den guztian martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, xedatutakoa beteko da.

#### **ZORTZIGARRENA.-**

- 1.- Hitzarmen hau egiteak ez du ekarriko parte hartzen duten alderdiek dituzten eskumenei uko egiterik ez eta haien aldaketarik ere. Esku hartzen duen alderdi bakoitzak hitzarmen honen indarrez dagozkion konpromisioen erantzukizunak bakarrik hartzen ditu bere gain.
- 2.- Hitzarmenak, izenpetzen denetik aurrera izango du indarra eta lanak bukatu ondoren amaituko da.

#### **BEDERATZIGARRENA.-**

- 1.- Hitzarmena iraungiko da aurreko klausulan aipatutako indarraldia amaitu delako edota hala ebatzi delako.
- 2.- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdiaren esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena hautsi dadin eskatzea.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, bi alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, aipatutako egunean eta tokian.

Lizartzako Udaletxearen aurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berria egiteko proiektua finantzatzeko hitzarmena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Era berean eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatu behar den hitzarmena, Udaleko Alkate-Lehendakaria den Joseba Egibar Artola Jaunari ahalmenak ematea, aho batez onartu da.

#### **4.- UDALETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO PROIEKTUAREN OBRAK LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA PLEGUAK**

Alkateak, hitza harturik, Lizartzako Udaletxearen aurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berria egiteko proiektuaren obrak lehiaketa ireki bide kontratzeko baldintza pleguak aurkeztu ditu, eta honela diote:

**ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, “LIZARTZAKO UDALETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO” PROIEKTUAREN OBRAK LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATZEA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

1.- KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia, Asmatu S.L.k egindako “Lizartzako Udaletxearen Aurrean Gaur Egun Dagoen Zubia Bota eta Pasabide Berria Egiteko” Proiektuaren Obrak Enkante Bidez Kontratatzea. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2.- OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea, 3 hilabete. Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzunkizunei aurre egin beharko dire, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren Prezioa 238.272,73 € izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo



da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

#### 4.- FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

#### 5.- NOLA ORDAINDU

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

#### 6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez dabidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

#### 7.- BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, ere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki denean, enkantearen oinarritzko aurrekontuaren %4 izango da, hau da, 9.530,91 €. Nolanahi ere, esleipena lortu duen enpresariaren proposamena, hasiera batean, ausarkeria-ustearen menpe egon bada, behin betiko bermearen zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo enkantearen oinarritzko aurrekontuaren %20 izango da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 36.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost eguneko izango da,

kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 35.1 artikuluan azaltzen diren etatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beteriak badaude. Itzulketa hori goian aipaturako testu bateginaren 47. artikuluan xedaturakoarekin bat etorritik egingo da.

## 8.- KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra, kontratuaren burutzapena, eta hori egutegiko hamabost eguneko epean izan beharko da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obraren galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 144. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira:

- a) Agiri honetan ezarritako baldintzak;
- b) Baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta
- c) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren ezarritakoak eta lege hori garatzeko Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko

obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

#### 9.- ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzunkizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

#### 10.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak ere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

#### 11.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustegabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunakez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 149.e artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

## 12.- OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzaileren esku utzi dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, 1 urteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Herri Administrazioen Kontrtuei buruzko Legea eta lege horren Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak zkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipnedunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrakesleitzaileren esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzunkizuna amaitutzat joko da.

## 13.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZA BETETZEN EZ BADITU

### A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,12 euro kontratuaren prezioaren 601,01 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen balkoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

### B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

#### 14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 111 eta 149. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

#### 15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) heri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

#### 16.- ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena enkante ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipena hurrengo baremoen arabera egingo egingo da:

- Prezio txikiena: 50 puntu.
- Lizartzako udalean egindako lan eskarmentua: 30 puntu.
- Kontratuaren exekuziorako proposamen honena: 20 puntu.

#### 17.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoez parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute. Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 18. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoez beren kabuz edo, baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateke ahalmena frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkie.

#### 18.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Udaletxeke Idazkaritza.

EGUNAK: Asteleneke Ostiralera.

ORDUA: Goizeke 8:00tatik, 14:00ra.

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteke epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegike 26 eguneko epean, iragarki ori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztzen diren proposamenak,

nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio Kontratazio-organuari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaltzen badu, baliozkoa izan dadin, herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lehiatzaileek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: “A-3, A-4 LOTURAKO ZUBIA”ren OBRAK ENKANTE IREKI BIDEZ KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetua egon beharko dute.

“A” kartazalaren azpitulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze-edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko enbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna jarduteko gaitasuna dela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide-

edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

Ekonomi Jaurderen gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 16 eta 17 artikulutan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.



“B” kartzalaren azpititulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA”. Bertan aurkeztu beharreko proposamena honako eredu honen arabera egingo da:

#### DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak: ....., Helbidea ..... Posta Kodea: ....., NAN. ...., Telef: .....

Ordez kariaren datuak: (Egonez gero)

Izen-abizenak: ....., Helbidea ..... Posta Kodea: ....., NAN.edo IFK....., Telef: .....

LIZARTZAKO UDALAETXEAREN AURREAN GAUR EGUN DAGOEN ZUBIA BOTA ETA PASABIDE BERRIA EGITEKO proiektuaren Obrak, kontratatzeko asmoz Lizartzako Udalak dei egindako enkantearen berri izan dudala, hona hemen nire

#### ADIERAZPENA

Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudula: .....€ (BEZ) barne. Prezio horren % ....., hau da, .....€ BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da: .....

Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean

dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

..... 2007ko .....ren ... a  
Izenpea

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

19.- AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazal" sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Eraberean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira

proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, goizeko bederatzitan, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean xedatutakoa beteko da.

Ondoren, eta goki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

## 20.- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Esleipena, gehienez, hogeit hamar eguneko epean egingo da, diru-proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita. Esleipena egin aurretik, esleipena hartzeko proposatuta dagoen lehiatzaileak egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betrik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu. Bost egun baliokiduneko epea izango du hori egiteko, jakinarazpen egokia jaso eta biharamunetik hasita.

Kontratazio organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipenaren berri emango zaio esleipendunari eta honek, egutegiko hamabost eguneko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, honako hauek egin beharko ditu:

Behin betiko bermea, eta egoki bada, berme osagarria jarri.

Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, gastuak ordaindu.

Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zunketa egiaztatzeke eta zunketa-akta izenpetzeke.

Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **21.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, II. Liburuko I. Tituluan ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agir honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **22.- JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontraturik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Lizartzako Udaletxearen aurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berria egiteko proiektuaren Obren Baldintza Pleguen proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

## **5.- IRUNZUBI INDUSTRIALDEAKO LUR ZATI BATZUEN KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEA**

Alkatearen, 2007ko maiatzaren 16ko barne-aginduren bitartez, Irurzubi Industrialdeko lur zati batzuen ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzeko espedienteari hasiera eman zaio. Ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzea herritarren onuragarri izango da.

Beraz, Udalbatzak onar dezan hauxe PROPOSATZEN DUGU:

1.- Irurzubi Industrialdeko lur zati batzuen ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzea. Hau da, jabari publikoko ondasuna izatetik ondare-ondasuna izatera pasatzea:

- a) P2 partzelaren Hegoaldea edo eta atzekaldeko gunea, 667,58 m<sup>2</sup> dituen, gaur egun jabari publikoa eta “gune libre publikoak” bezala kalifikatua, indarrean dagoen Xehetasun Azterlanean.
- b) P2 partzelaren Ekialdea edo eskubialdeko zunean, 539,00 m<sup>2</sup> dituen, gaur egun jabari publikoa eta “interes publikoko zerbitzugunea” bezala kalifikatua, indarrean dagoen Xehetasun Azterlanean.

Irurzubi Industrialdea, 7an kokatzen den ONIK Sistemas de Elevación S.L.k, bere erabilerako, eraikigarritasunik izango ez duten lur hoi beharra agertu du, zera proposatuz:

Bere jabetzakoa izango den, eta aurreago aipatzen den lur zatiarekin permuta egitea:

“Lizartzako 1. poligonoko 246 partzela. Katastroaren arabera, 2.389 m<sup>2</sup> ditu. Mugak: Iparraldetik: Herri lurra; Hegoaldetik, Pedro Zabala Goñi, Pedro

Arrospide Iraeta eta Jesus Maria Elola Iturrioz; Ekialdetik: Herri lurra; eta Mendebaldetik: Araxes Papelera". Tolosako Jabego Erroldaritzan inskribatua, Lizartzako 2063 Tomoa, 30 Liburua, 93 orria, 1454 finka.

2006ko martxoaren 24ko Alkatetzaren ebazpenaren bitartez, Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-1 Unitateko Birzatiketaren aldaketa onartu zen; bertan, 1.206,58 m<sup>2</sup> eransten ziren U-1 Jarduketa Unitateari.

Ondoren, Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikusketako Irunzubi Industrialdeko gunean eransketa hau onartu zen. Gaur egun, Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikusketak agiria, Gipuzkoako Foru Aldundiaren behin betiko onarpenaren zain daude.

- 2.- Ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzeko erabakia jendaurrera zabaltzea hilabetez, udaletxeko iragarki-oholean jarriz eta lurraldeko aldizkari ofizialean argitaratuz, erabakiaren aurkako arrazoibiderik inork aurkeztu nahi badu ere.
- 3.- Kalifikazio juridikoa aldatzeko erabakia jendaurrera zabaltzeko ondoren, aurkako arrazoibiderik inork aurkezten ez badu, erabakia behin betikotzat jotzea.

Irunzubi Industrialdeako lur zati batzuen kalifikazioa aldatzeko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **6.- AZTINONDO FRONTOIAKO TEILATUA BERRITZEKO LANEN ADJUDIKAZIOA**

Bi mila eta zazpiko maiatzaren hamaseian ospatutako bilkuran, Lizartzako Aztinondo Pilotalekuaren Estalkia Berritzeko lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen, TEJAS Y CUBIERTA LOPETEGI SLU-ren alde, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituenak, 65 puntu.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, zera proposatu da:

- 1.- Enkanteko eskaintza balioestea eta Lizartzako Aztinondo Pilotalekuaren Estalkia Berritzeko lanen kontratua, TEJAS Y CUBIERTAS LOPETEGI SLU-ri, LAUROGEITA HAMALAU MILA ETA BOSTEHUN (94.500,-) €-tan (Bez barne delarik) eurotan adjudikatzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 622.452.04.01 partidaren kargura, 94.500,00,- €-tako gastua onartzea.
- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Lizartzako Aztinondo Pilotalekuaren Estalkia Berritzeko lanen kontratua, TEJAS Y CUBIERTAS LOPETEGI SLU-ri, LAUROGEITA HAMALAU MILA ETA BOSTEHUN (94.500,-) €-tan (Bez barne delarik) eurotan adjudikatzea, aho batez onartu da, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituen.

## **7.- HERRIKO ARGITERIAREN ZUTABE BURUAK ALDATU KUTSADURA LUMINIKOA SAIHESTEKO. LANEN ADJUDIKAZIOA**

### **ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA**

Bi mila eta zazpiko maiatzaren hamaseian ospatutako bilkuran, Lizartzako Herriko Argiteriaren Zutabe Buruak Aldatu Kutsadura Luminikoa Saihesteko lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen, ERKA S.L.ren alde, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituen, 68,96 puntu.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, zera proposatu da:

- 1.- Enkanteko eskaintza balioestea eta Lizartzako Herriko Argiteriaren Zutabe Buruak Aldatu Kutsadura Luminikoa Saihesteko lanen kontratua, ERKA S.L.ri, BERROGEITA HAMAHIRU MILA LAUEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI euro BI zentimo (53.429,02) €-tan (Bez barne delarik) eurotan adjudikatzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 623.433.01.02 partidaren kargura, 53.429,02,- €-tako gastua onartzea.
- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapena lanen kontratua, Lizartzako Herriko Argiteriaren Zutabe Buruak Aldatu Kutsadura Luminikoa Saihesteko lanen kontratua, ERKA S.L.ri, BERROGEITA HAMAHIRU MILA LAUEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI euro BI zentimo (53.429,02) €-tan (Bez barne delarik) adjudikatzea, aho batez onartu da, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituen.

## **8.- KREDITU ALDAKETA 2/2007**

### **KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 2 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Lizartzako Udal honen 2007ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.



Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 238.272,73 €-tako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoen Kontuhartzailatza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

## **9.- OSTATUKO LEHIAKETAREN ADJUDIKAZIOA**

### **LIZARTZAKO GIZARTE GUNEKO JUBILATUEN TABERNA ETA JANGELA-ERABILERA ANITZEKO LOKALAREN ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA**

Bi mila eta zazpiko maiatzaren hamaseian ospatutako bilkuran, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera Anitzeko Lokalaren lehiaketarako adjudikazio proposamena luzatu zen, PAULA DE BAIROS SOUSA Andrearen alde.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, zera ERABAKITZEN DA:

- 1.- Enkanteko eskaintza balioestea eta Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera Anitzeko Lokalaren lehiaketaren kontratua,

PAULA DE BAIROS SOUSA Andreari, BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (250,00,-) €-tan (Bez barne delarik) adjudikatzea.

- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

#### **10.- ALKATETZA DEKRETUAK**

#### **FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM(e)k ESKATUTAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA ONARTZEN DUEN 2007ko MARTXOAREN 16ko EBAZPENA**

FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM(e)k Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren egindako eskaera ikusirik, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak xedatutakoari jarraituz eta ondokoak kontuan harturik.

#### **AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 0902283 NAN zenbakia duen FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM andreak, 2007ko martxoaren 16an Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren eskaera aurkeztu zuen, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuan ezarritakoaren babespean.

**BIGARRENA.-** FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM andreak egiaztatzen du eskaera aurkeztu baino gutxienez sei hilabete aurretik egon dela Euskal Autonomia Erkidegoko eroldaren batean.

Aipatutako aurrekariei dagokienez, honakoak aplikatu dakizkieke:

#### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak adierazten duenez, eskatzailea bizi den udalerriko udalak izapidetu du espedientea.

**BIGARRENA.-** Maiatzaren 22ko gizarte bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legearen 42. artikulua xedatzen duenez, Lizartzako Udala entitatea da Gizarte-Larrialdietarako-Laguntzak ematea onartzeko edo ukatzeko eskumena duen organoa.

**HIRUGARRENA.-** Eskabidea eta erantsitako agiriak aztertutik, eskabidearen oinarri diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak, eta maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, gizarte bazterkeriaren aurkakoak, xedatzen dituzten betekizunak betetzen direla egiaztatu da.

**ONDOKOAK IKUSIRIK:** Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretua, maiatzaren 22ko 12/1998 Legea, gizarte bazterkeriaren aurkakoak; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har eta batera aplikatu bearreko gainerako lege-arauak.

Ondorioz, eta eman zaizkidan ahalmenez baliaturik, ondokoa

### **EBATZI DUT**

0902283NAN zenbakia duen FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM andreami Gizarte Larrialdietarako Laguntza **EMATEA**, ondoko taulan agertzen diren kontzeptu, epe eta hileroko zenbatekoekin.

<b>Zeren kontzeptuan</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Epea</b>	<b>Guztira</b>
Alokairua	168,00	2007/01/01–2007/09/01	1.344,00
<b>GUZTIRA</b>			<b>1.344,00</b>

Laguntza hauek helburu zehatz batekin ematen dira, eta eman diren helbururako baino ezin dira erabili. Beranduago udalak konprobatu beharko du helburu hori errespetatu den, eta onuradunak egindako gastuak fakturak edo ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, horretarako zehaztutako epearen barruan.

Fakturak edo ziurtagiriak aurkezteko gehienezko epea hilabete batekoa izango da, jakinarazpen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, ordainketa bakar bat egiten bada. Zatikako ordainketen kasuan, berriz, 15 eguneko epean aurkeztu behar dira faktura edo ziurtagiri horiek, zatikako ordainketa bakoitza egiten den unetik kontatzen hasita. Faktura edo ziurtagiriak aipatutako epearen barruan aurkezten ez badira, prestazioak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, hala badagokio.

Halaber, laguntzak emateko baldintza oraindik betetzen direla konprobatuko du Udalak, dagozkion bitartekoak erabiliz.

Dauden aurrekontu-baliabideak kontuan harturik, ebazpen honen bidez emandako zenbatekoa gutxitu ahal izango da, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren 14. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epategiaren aurrean, BI HILABETEKO epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo, nahi bada, birjarpen errekurtsua ebazpen hau eman duen organoaren beraren aurrean, HILABETEKO epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Organo horrek emandako ebazpen adieraziaren zein adierazi gabearen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epategiaren aurrean, BI HILABETEKO epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo SEI HILABETEKO epean, errekurtsuaren presuntziozko ezespena gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

**ANTONIO ETXARRI IRAIZOZ(e)k ESKATUTAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA ONARTZEN DUEN 2007ko MARTXOAREN 16ko EBAZPENA**

Antonio Etxarri Iraizoz(e)k Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren egindako eskaera ikusirik, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak xedatutakoari jarraituz eta ondokoak kontuan harturik.

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 15.926.077 A NAN zenbakia duen ANTONIO ETXARRI IRAIZOZ jaunak, 2007ko martxoaren 16an Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren eskaera aurkeztu zuen, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuan ezarritakoaren babespean.

**BIGARRENA.-** ANTONIO ETXARRI IRAIZOZ jaunak egiaztatzen du eskaera aurkeztu baino gutxienez sei hilabete aurretik egon dela Euskal Autonomia Erkidegoko eroldaren batean.

Aipatutako aurrekariei dagokienez, honakoak aplikatu dakizkieke:

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak adierazten duenez, eskatzailea bizi den udalerriko udalak izapidetu du espedientea.

**BIGARRENA.-** Maiatzaren 22ko gizarte bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legearen 42. artikulua xedatzen duenez, Lizartzako Udala entitatea da Gizarte-Larrialdietarako-Laguntzak ematea onartzeko edo ukatzeko eskumena duen organoa.

**HIRUGARRENA.-** Eskabidea eta erantsitako agiriak aztertutik, eskabidearen oinarri diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak, eta maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, gizarte bazterkeriaren aurkakoak, xedatzen dituzten betekizunak betetzen direla egiaztatu da.

**ONDOKOAK IKUSIRIK:** Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretua, maiatzaren 22ko 12/1998 Legea, gizarte bazterkeriaren aurkakoak; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har eta batera aplikatu bearreko gainerako lege-arauak.

Ondorioz, eta eman zaizkidan ahalmenez baliaturik, ondokoa

### **EBATZI DUT**

15.926.077 A zenbakia duen ANTONIO ETXARRI IRAIZOZ jaunari Gizarte Larrialdietarako Laguntza **EMATEA**, ondoko taulan agertzen diren kontzeptu, epe eta hileroko zenbatekoekin.

<b>Zeren kontzeptuan</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Epea</b>	<b>Guztira</b>
Alokairua	230,00	2007/02/01–2007/07/01	1.150,00
<b>GUZTIRA</b>			<b>1.150,00</b>

Laguntza hauek helburu zehatz batekin ematen dira, eta eman diren helbururako baino ezin dira erabili. Beranduago udalak konprobatu beharko du helburu hori errespetatu den, eta onuradunak egindako gastuak fakturak edo ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, horretarako zehaztutako epearen barruan.

Fakturak edo ziurtagiriak aurkezteko gehienezko epea hilabete batekoa izango da, jakinarazpen egunaren biharamunetik kontaktzen hasita, ordainketa bakar bat egiten bada. Zatikako ordainketen kasuan, berriz, 15 eguneko epean

aurkeztu behar dira faktura edo ziurtagiri horiek, zatikako ordainketa bakoitza egiten den unetik kontatzen hasita. Faktura edo ziurtagiriak aipatutako epearen barruan aurkezten ez badira, prestazioak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, hala badagokio.

Halaber, laguntzak emateko baldintza oraindik betetzen direla konprobatuko du Udalak, dagozkion bitartekoak erabiliz.

Dauden aurrekontu-baliabideak kontuan harturik, ebazpen honen bidez emandako zenbatekoa gutxitu ahal izango da, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren 14. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, BI HILABETEko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo, nahi bada, birjarpen errekurtsua ebazpen hau eman duen organoaren beraren aurrean, HILABETEKO epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Organo horrek emandako ebazpen adieraziaren zein adierazi gabearen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, BI HILABETEKO epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo SEI HILABETEKO epean, errekurtsuaren presuntziozko ezespina gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

IGOKA ESPEDIENTEA – MANIPULADOS DEL ARAXES S.A. 203/2007

### **IGOKA ESPEDIENTEA. PAPERAREN MOZKETA ETA PAKETATZEA**

Manipulados del Araxes-ek, herri honetako Irurzubi Industrialdea, 8an, PAPERAREN MOZKETA ETA PAKETATZEA jartzeko eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamentu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, PAPERAREN MOZKETA ETA PAKETATZEA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

1.- MANIPULADOS DEL ARAXES S.A. baimentzea, herri honetako Irunzubi Industrialdea, 8an, PAPERAREN MOZKETA ETA PAKETATZEA jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik:

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailordetzak bidalitako txostena eransten da.

#### BALDINTZAK

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Manipulados del Araxes-ek Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.



IÑAKI ALTUNA AZURMENDIA – OBRATAKO BAIMENA – 214/2007

<b>Eskatzailea:</b>	IÑAKI ALTUNA AZURMENDI
<b>Lanen helbidea:</b>	KALE NAGUSIA, 14
<b>Lanen deskripzioa:</b>	ERAIKINA ERABERRITZEA
<b>Esped. Zkia:</b>	193/2007

**DEKRETUA**  
**Obra baimena**

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena, EMATEA

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Eraikuntzako ordenantzen arabera egingo da obra.
- 2.- Lizartzako Laguntzazko Arau Subsidiarioetako agindu orokorrak betetzera, baldintzatzea.
- 3.- Behin obra amaituta, Obra bukaerako ziurtagiriak, planuak eta argazkiak ekarriko dira Udalera.

**Baldintza Orokorrak**

- 1.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.
- 2.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun-neurriak bete behar dira.

- 3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.
- 4.- Obra baimena indarrean sartzeko, beharrezkoa izango da Exekuzio Egitasmoa Osatua aurkeztea Udalean.
- 5.- Bestetik, Kale Nagusiko garajeko sarrerak, Foru Aldundiko Errepide Saileko baimena behar du.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

#### MANIPULADOS DEL ARAXES – 10% APROBETXAMENDUA – 229/2007

IKUSIRIK.- MANIPULADOS DEL ARAXES S.A., bere izenean aurkeztutako, Irunzubi Industrialdeko, 8an Eraikinaren Handipena egiteko proiektua, obratako udal baimena eskatuaz.

IKUSIRIK.- Proiektua aztertu ondoren, Udaleko Arkitekto Aholkulariak luzatu duen txostena, non agertzen den, eraikin horretan tarteko solairua eraiki dela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Jose Ignacio Galarraga – URBA UTE-rekin 2004ko otsailaren 27an sinatutako hitzarmenaren 4. artikulua azken paragrafoan, honela diola:

Hitzarmen honetan finkatutako hirigintza aprobetxamenduak ez du jasotzen tarteko solairuetan eraikigarria den azaleraren likidazioa. Likidazio hori onartutako obra proiektuen arabera izango da, eta guztiek espediente bakoitzean eraikitzen den azalera adierazi beharko dute. Kasu horietan, irabazizko aprobetxamenduaren %10eko balioa horiek eraikitzean udaleko teknikariek indarrean dauden legeen arabera ezarritako balioespenaren arabera finkatuko da.

KONTUTAN HARTUAZ.- Udaleko Arkitekto Aholkulariak eginiko balioespenaren arabera, aprobetxamendu horren %10aren balioa, 7.397,60 €-tako dela.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

1.- Udaleko Arkitekto Aholkulariak eginiko balioespena onartu eta Manipulados del Araxes S.A.-ri, 7.397,60 €-tako kopurua udalari ordaintzeko eskatzea, aurreago aipatutako hitzarmenaren 4. artikulua dioena beteaz.

Ordainketa hori, Udalaren izenean, KUTXAn dagoen, **2101.0053.75.0002206308** zenbakidun kontuan egin beharko da; ordainketa egiteko azken eguna: 2007ko maiatzaren 11.

Era berean, jakinaraztea, errekurso nahiz erreklamazio hauek aurkez daitezkeela:

1.- Berraztertze errekursoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko diru-erreklamazioaren aurretik, kitapen honen

jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru; eta Alkateari aurkeztu behar zaio.

Administrazioarekiko diru-erreklamazioa zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe, kitapen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru; eta, aurkeztu, Gipuzkoako Foru Diputazioko Administrazioaren Ekonomia Auzitegiari aurkeztu behar zaio. Erreklamazioaren aurretik berraztertze errekurtsua jarri izan bada, beronen erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru, aurkeztuko da beste hura.

#### MANIPULADOS DEL ARAXES – OBRATAKO BAIMENA – 231/2007

<b>Eskatzailea:</b>	MANIPULADOS DEL ARAXES S.A.
<b>Lanen Helbidea:</b>	IRUNZUBI INDUSTRIALDEA, 8
<b>Lanen Deskripzioa:</b>	ERAIKINAREN HANDIPENA

### **DEKRETUA** **Obra baimena**

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena, **EMATEA**.

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Behin lizentziari dagozkion tasak eta lizentzia indarrean sartzen denean, obrak hasi aurretik erreplanteo akta egingo da obra zuzendaritza, jabetza eta Udal Teknikaria ere bertan egon beharko direlarik. Akta honen xedea, eraikuntzaren kokaera eta neurriak egoki izango direla ziurtatzea da. Jadanik eraikita dagoenez, eraikitakoa konprobatu beharko da.

2.- Behin obra amaituta, Obra amaierako ziurtagiria ekarriko da Udalera.

3.- Obrak amaitutakoan, Lehen Erabilera tramitatu beharko da Udalean, eraikin berria erabili ahal izateko baimena eskuratzeko. Honetarako, Instalakuntza guztien Industriako Ikusonetsia eta altako boletinak, argazkiak eta Obra berriaren eskriturak ekarri beharko dira. (U-4 inprimakia ere beteta ekarriko da).

4.- IGOKA espedientea egin beharko da jarduera baimena eskuratzeko.

5.- Ez da lehen erabilera baimenik emango aktibitateari dagozkion tramiteak amaituta ez dauden bitartean.

#### Baldintza Orokorrak

1.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.

2.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun-neurriak bete behar dira.

3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

4.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira,

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

#### OTSABIO KIROL ELKARTEARI LAGUNTZA – 234/2007

Otsabio Kirol Elkarteak, 2007ko Martxoaren 18an, AFIZIONATUENTZAT izango den XVIII. TXIRRINDULARI FROGRA-ren alde laguntza eskatu du:

- 800,00 €-tako diru-laguntza
- Karrera egunerako frontoiko aldagelak eta duxtak.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

Eskatutako diru-laguntza onartu eta beste eskaerakin batera baimentzea.

Udaleko Kontuhartzailetzari, aipatutako 800,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

#### ZABORREN ERROLDAREN ONARPENA – 250/207

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2007ko Apirilaren 25-ean, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2007-ko 1. Hiruhilabeteari dagokion Zaborren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren.

Denetara 334 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua,  
4.806,00 €

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean  
ERABAKI DUT:

2007 URTEKO 1. HIRUHILABETEKO ZABORREN ZERGAREN ERROLDA  
ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio  
bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu  
ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon  
duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den  
hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita  
legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide  
Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

UR ERROLDAREN ONARPENA – 251/2007

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2007ko  
Apirilaren 25-ean, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2007-ko 1. Hiruhilabeteari dagokion Uraren Zergaren errolda  
iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren.  
Denetara 294 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua,  
5.229,30 €

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean  
ERABAKI DUT:

2007 URTEKO 1. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGAREN ERROLDA  
ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldeztu aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

IGOKA ESPEDIENTEA – GOIK CALDERERIA Y RECUBRIMIENTOS S.L. – 268/2007

IKUSIRIK.- GOIK CALDERERIA Y RECUBRIMIENTOS S.L.k, Irunzubi Industrialdea, 7 F-G.an kokatuko den, EGITURA ARIN ETA AZALEKO TRATAMENDU GALDERERIA (Calderería de estructura ligera y tratamiento superficial) egiteko baimena eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

IKUSIRIK.- Kontutan hartuz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

KONTUAN HARTUAZ.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera ERABAKI DUT:

1.- GOIK CALDERERIA Y RECUBRIMIENTOS S.L.k aurkeztu duen, herri honetako Irunzubi Industrialdea, 7 F-G.an kokatuko den, EGITURA ARIN ETA AZALEKO TRATAMENDU GALDERERIA (Calderería de estructura ligera y tratamiento superficial) Irekiera baimena egiteko eskaturiko baimenari, aldeko txostena luzatzea.



2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, EGITURA ARIN ETA AZALEKO TRATAMENDU GALDERERIA (Calderería de estructura ligera y tratamiento superficial) kalifikazioa proposatzen da.

JUAN SAN SEBASTIAN MURUA – OBRATAKO BAIMENA – 270/2007

Eskatzailea:	JUAN SAN SEBASTIAN MURUA
Obra:	OSTATU BERRI ETXEAREN PARETA BABESTEKO, ERREPIDE ERTZETIK HASI ETA ETXEAREN BESTE IZKINARAINO HORMIGOIEZ PARETA SENDOTZEA. APARKALEAKUAN SEGURTASUNA BERMATZEKO (UMEAK ETA ABAT) ETXEA ETA APARKALEKUAREN PARETAREN GAINA PARRILA BATEZ ESTALTZEA.
Espediente Zkia:	270/2007

**Alkatearen dekretua  
Obra egiteko baimena**

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena **EMATEA**, baldintza hauekin:

Etxearen egonkortasun eta isolamendu baldintzak bermatzeko neurriak eraikuntzan proposatzen den horma egiteko baimena ematen da, beti ere arroaren sakontasun eta zabaleroan inongo eraginik eragin gabe eta obran zehar uren kutsadura saihesteko neurriak hartzeko baldintzetan.

Erreka, parrilla bidez estaltzeko eskariari baimena **EZ EMATEA**, arrazoi hauengatik:

2007ko urtarrilaren 14an behin betikoz onartutako Lizartzako Arau Berrikusketa dokumentuaren Lurzoru hiritar ezinaren araudiaren 147. artikuluan

jasotzen denaren arabera (Ibai eta erreka ertzak antolatzeko lurralde arloko planak ezarritakoa jasotzen duena), ez da baimenduko 0,5 km<sup>2</sup>-ko arroa baino handiagoa jasotzen duen ubideen estalpena.

Kasu honetan aipatutako errekek, 0,50 km<sup>2</sup>-ko arroko azalera baino gehiago du eta beraz, ezin baimendu daiteke honen estalpena.

Bere kasuan, aparkalekutik uretarako babesa lortzeko, aparkalekuan bertan baranda bat jartzea gomendatzen da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeke errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen<sup>1</sup> 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeke errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita; eta, aurkeztu, Alkateari aurkeztu behar zaio.

## BILKURA DEIA

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta Ihardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak, ikusirik, ERABAKI DUT:

**1.- MAIATZAREN 21ean, goizeko 8tarako**, Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:

1.- Aurreko Bilkuretako Akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

- 2.- Udaletxearen aurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berria egiteko proiektuaren onarpena.
  - 3.- Udaletxearen aurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berria egiteko proiektua finantzatzeko hitzarmena.
  - 4.- Udaletxearen aurrean gaur egun dagoen zubia bota eta pasabide berria egiteko proiektuaren obrak Lehiaketa Ireki bidez kontratatzeko Baldintza Pleguak.
  - 5.- Irunzubi Industrialdeako lur zati batzuen desafektazioa.
  - 6.- Aztinondo Frontoiaiko Teilatua Berritzeko lanen adjudikazioa.
  - 7.- Herriko Argiteriaren Zutabe Buruak Aldatu Kutsadura Luminikoa Saihesteko. Lanen adjudikazioa.
  - 8.- Kreditu Aldaketa 2/2007.
  - 9.- Ostatu lehiaketaren adjudikazioa.
  - 10.- Alkatetza Dekretuak.
  - 11.- Bestelakoak.
- 
- 2.- Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

## 12.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatziak direnean.